

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 78/2024 Erabakia, otsailaren 27koa. Onestea Arabako merkataritza sektorean 2024ko ekitaldian egiteko diren inbertsioei aurre egiteko laguntza deialdia

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneren esparruan dago autonomoen erregimenean lan egiten duten pertsonen jarduera bultzatzen duten ekintzak eta ekimenak garatzea, bai eta hurbileko merkataritzaren lehiakortasuna handitzea ere.

Lehiakortasun maila on batek hazkuntza eta errentagarritasuna islatzen ditu, eta haren kudeatzaileentzat edo jabeentzat onuragarria izateaz gain kontsumitzaileentzat eta herritarrentzat ere ona da zerbitzuaren kalitateari eta jarraikortasunari dagokienez.

Testuinguru horretan, lehiakortasuna areagotzeko, funtsezkoak dira negozioak hobetzeko inbertsioak egitea eta teknologia berriak eta merkataritza elektronikoa gero eta gehiago erabiltzea, honako hauengatik: harreman gehiago sortzen da ekoizle/hornitzaileen eta kontsumitzaileen artean, merkatu berrietara eta urrunekoetara iristen da kostu baxuetan, merkatuaren informazioa sarbide handiagoa egoten da, logistika hobetzen dute etab.

Jakin badakigu merkataritza sektoreko autonomoentzat zer nolako ahalegin ekonomikoa den horrelako inbertsioak egitea, komeni da honako dirulaguntza deialdiaren bidez inbertsio horiei laguntzea.

Arabako Foru Aldundiak, (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneren eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Oinarri horiek onartzearen ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, laguntzetarako deialdia ezarri behar da, 2024 ekitaldian Arabako merkataritza sektorean sortutako inbertsioei aurre egiteko ekimen horiek berari lotu beharko baitzaizkio.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hartutako

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Arabako merkataritza sektorean sortutako inbertsioei aurre egiteko laguntzen 2024ko deialdia.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta ebazpen honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak 2024ra luzazutako Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko 30502. G/431300/77000301 gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 218.300,00 euroz baitago hornitua.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko100era arte, baldin eta beste aurrekontu partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hila-bete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

2024KO EKITALDIAN ARABAKO MERKATARITZA SEKTOREAN SORTUTAKO INBERTSIOEI AURRE EGITEKO LAGUNTZAK

1. artikulua. Helburua

Deialdi honen xedea da Arabako merkataritza sektoreko autonomoei eta enpresei laguntzea, 2024ko ekitaldian merkataritzaren lehiakortasuna hobetuko duten inbertsioak estaltzeko.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehienezko zenbateko osoa

2.1. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko 30502. G/431300/77000301 gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 218.300,00 euroz baitago hornitua.

2.2. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko100era arte, baldin eta beste aurrekontu partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Honako hauek izan daitezke erakunde onuradunak, beren jarduera txikizkako merkataritza sektorean garatzen badute.

a) Langile autonomoak, baldin gehienez ere 8 enplegatu badituzte.

b) Sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak, gehienez ere 9 autonomoz osatuak.

c) Merkataritza sozietateak, baldin enpresan dituzten partaidetzak autonomoen araubide berezian kotizatzen duten gehienez ere 9 langileri badagozkie (edo araubide orokorrean, kooperatiben edo lan sozietate mugatuen kasuan).

Enplegatutako pertsonen datu horretarako, kontuan hartuko da laguntza eskaera aurkeztu aurreko hamabi hilabeteko batez besteko plantilla. Batez besteko plantilla egiaztatzeke, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako egiaztagiria bat erabiliko da, laguntza eskatu aurreko urtean izandako batez besteko plantillari buruzkoa (erakunde eskatzailearen kotizazio kontu guztiak barne). Erakundeak alta geroago eman badu, gizarte segurantzaren alta eman zuen egunetik eskaera egin zen egunera arteko aldirako egiaztagiria eskatu beharko da.

Eskaera bat (egokitzen jotako inbertsio motetarako) baino ezingo dute aurkeztu b) eta c) idatz zatiaren zehaztutako onuradunek, berdin diolarik erakundeak autonomo batek baino gehiagok osatzen badituzte: langile autonomoen eta kontratatutako pertsonen baturak ezin du 9 langileko kopurua gainditu.

3.2. Erakunde onuradunek gutxienez salmenta puntu finko eta fisiko bat izan beharko dute eta/edo zerbitzuak eta/edo artisautzako lantegia merkataritzarako etxabeetan Arabako udalerrietan. Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galeria pribatuetako establezimenduak ere aintzat hartuko dira.

Hala ere, onuraduna izatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda egon behar da:

– Lehenengo ataletik, honako talde hauek:

- 64 taldea. Janarien, edarien eta tabakoen txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egina (salbu eta 646.3, 646.4, 646.5, 646.6 eta 647.5 taldeak).

- 65 taldea. Elikadurarako ez diren ekoizkinen txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egina (salbu eta 654 eta 655 taldeak).

- 662 taldea. Bestelako txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.

- 97 taldea. Zerbitzu pertsonalak (salbu eta 974 taldea).

- 755 taldea. Bidaia agentziak.

– Bigarren ataletik, 86 taldea. Lanbide liberalak, artistikoak eta literarioak.”

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak egiaztatuko du erakunde eskatzailea goian aipatutako ekonomia jardueren gaineko zergaren epigraferen batean alta emanda dagoela, erakunde horrek aurka egiten ez badu, behintzat. Kasu horretan, esandakoa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua xedatzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatu zuen, azken xedapenetako hamabigarrena dela bide).

3.3. Onuradun guztiek Araban izan beharko dute zerga egoitza eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpena hartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian. Ebazpena eman aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeke, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13.1 artikuluko e) apartatuan zehaztutakoa hartuko da kontuan.

Onuraduna sozietate zibil bat bada, egiaztatu behar da bai sozietateak, bai bazkide guztiek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; beraz, kasu horretan, eskabidearekin batera, sozietatearen eratzeko agiria aurkeztu beharko da (publikoa edo pribatua), bai eta sozietateko partaide guztiak Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin egunean daudela egiaztatzen duten agiriak ere.

3.4. Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 23.2 artikuluan.

Halaber, ezingo dute parte hartu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexua dela eta bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ez eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrekin zehatutakoek ere, hala xedatzen baitu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak diruz lagundu ahalko dira.

Bi eratakoak izan ahalko dira:

a) Hobekuntza teknologikoarekin lotuak, negozioak digitalizatzeko eta lineako salmenta sustatzeko. Esate baterako, honako inbertsio hauek:

– Aplikazio informatikoak (softwarea), TicketBALren betebeharra betetzeko beharrezkoa den softwarea eskuratu, instalatu, ezarri, eman, eguneratu edo berritzea barne.

– Informazio prozesurako ekipoak eta osagarriak (mahaiko ordenagailuak, eskanerrak, inprimagailuak, salmenta puntuko terminalak, kode irakurgailuak, etiketa sistemak, agenda eta balantza elektronikoak, etab.).

– Teknologia hobekuntzekin loturiko aholkularitza (diruz lagundu daitezkeen gehienezko oinarria idatz zati honetan: 700,00 euro).

– Web orriak sortzea (diseinua barne).

Ez dira diruz lagungarritzat joko ez tabletak ez telefono mugikorak.

Dirulaguntza honen xede diren ekipo informatikoak salmenta puntuan egon beharko dira fisikoki kokatuak.

b) Lokalaren ekipamendu fisikoarekin eta desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunarekin lotutakoak (saltegien irisgarritasuna hobetzea izango da egin beharreko hobekuntzak egitea, askotariko dibertsitatefuntzionalei loturiko behar bereziak dituzten pertsonen aukera izan dezaten era autonomoan jarduteko saltegi eta zerbitzuetan). Esate baterako, honako inbertsio hauek:

– Lokalak egokitzeko obrak.

– Jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzariak eta/edo ekipamenduak/instalazioak.

– Errotuluak, eguzki oihalak eta sareak.

– Marken erregistroa.

– Kanpoko zerbitzuak eta/edo aholkularitza bereziko zerbitzuak.

– Irudi korporatiboa diseinatu eta garatzea.

– Kanpotik barrura sartzea errazteko edo lekualdatze horizontalak eta/edo bertikalak errazago egiteko obrak.

– Ikusmena, entzumena edo ukimena erabiliz orientatzeko panelak eta/edo euskarriak.

– Zerbitzuei buruzko argibideak braillez eta/edo bisualki egokituak.

– Web teknologiak, aukera emango dutenak argibideak era autonomoan eskuratzeko eta ezindu guztien dibertsitatera iristeko.

4.2. Eskatzaile batek mota desberdinetako inbertsioak aurkezten baditu, eskaera bat aurkeztuko du inbertsio mota bakoitzeko (gehienez 2 eskaera eskatzaile bakoitzeko).

4.3. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta erakunde onuradunak ordaindu egiten baditu. Zeharkako zergetatik eratorritako gastuak ez dira inola ere diruz lagunduko, eta, zehazkiago, balio erantsiaren gaineko zergarenak (BEZ).

4.4. Baimenduta dago diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 27. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero.

4.5. Ez da diruz lagunduko erostea eskatzailea ez den beste jabe batek lehenago erabilitako ekipoak eta/edo inbertsioak.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitarteko aldi egin beharko dituzte inbertsioak.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatu dakiekeen dirulaguntza ehuneko 50 izango da.

Hala ere, deialdia ebatzitakoan, ez bada aurreko 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahalko da, hainbanaketaz ehuneko 70eraino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehuneko.

6.2. Eskatzaile bakoitzeko gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa 4.500,00 euro izango da.

6.3. Dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 200,00 euro da onuradun bakoitzeko; beraz, dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko, diruz lagun daitezkeen gastuen gutxieneko zenbatekoa 400,00 euro izango da.

7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

7.1. Oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduerak jaso ditzaizketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira ebazpen honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

Bateraezintzat joko da Arabako Foru Aldundiak jarduera bererako emandako beste edozein laguntza.

7.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza murriztea edo ukatzea proposa dezakeen.

7.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso edo eskatu baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran. Kasu horretan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak eragina izango badu, erakunde onuradunak uko egin beharko die aurretik eskuraturako dirulaguntzei; halaber, jasotako funts publikoak itzuli beharko ditu, hala badagokio.

7.4. Laguntzen deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Ondorio horietarako, Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ez dela izango 200.000,00 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio batzordea honela eratuta egongo da:

- Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2024ko apirilaren 17a, 14:00etan bukatuko da.

9.2. Eskaerak hemen aurkeztuko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
- Foru Ogasunak Gasteizen, Guardian eta Laudion dituen bulegoen erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan jasotzen dituen erregistroetatik edozeinetan. Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki aurkeztu beharrekoa, berariazko izapidearen bidez, egoitza elektronikora jota (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/arabako-merkataritza-sektorean-sortutako-inbertsioei-aurre-egiteko-laguntzak>), pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, elkargo bateko kide izatea eskatzen duen jarduera profesionalean dihardutenek eta jarduera hori gauzatzean egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremanak elektronikoki egitera behar-tuta dagoen interesdun baten ordezkariak.

AFAren egoitza elektronikoen zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoen baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoen: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

9.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoen zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

a) Merkataritza jardueraren eta egindako inbertsioen memoria (sektorea, antzinasuna, koka-pena, langileak, inbertsioen beharra eta inbertsio horiek eskatzailearen lehiakortasun hobekuntzari dagokionez izan ditzaketen ondorioak).

b) Inbertsio/jardunen, zeinetarako laguntzak eskatu diren, eskaintzen edo/eta aurrekontuen, edo/eta fakturen fotokopia. Aurkeztutako inbertsio/jardunen batek kontratu txikien muga gainditzen badu (40.000,00 euro obretarako eta 15.000,00 euro gainerakorako), eskatutako 3 eskaintzen fotokopia erantsi beharko da ondasuna sartu baino lehen, eta zein eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako egiaztagiria, laguntza eskatu aurreko 365 egunean izandako batez besteko plantillari buruzkoa (erakunde eskatzailearen kotizazio kontu guztiak barne). Erakundeak alta geroago eman badu, gizarte segurantzaren alta eman zuen egunetik eskaera egin zen egunera arteko aldirako egiaztagiria eskatu beharko da. Era berean, egun horien artean langilerik kontratatu ez bada, enpresaburu gisa erregistratuta egon ez dela adierazten duen txostena edo kotizazio kontuaren kodearen egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko da.

d) Dirulaguntza honetarako eskatutako jardueretarako beste diru sarrera batzuk lortu eta/edo eskatu badira, diru sarrera horien edo eskaeraren justifikazioa aurkeztu beharko da.

9.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

9.5. Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskuduneari:

- zerga betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa,
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa,
- eskatzailearen zerga egoitzari buruzko informazioa,
- EJZren epigrafeetan alta emandako informazioa,
- informazioa, ea ordaindu den Ogasunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa (profesionalek jaulkitako fakturen kasuan soilik).

Eskatzaileak ofiziozko egiaztapen horren aurka egin ahal izango du. Hala eginez gero, eskatzaileak aurreko betebeharrak bete dituela egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu laguntza eskabidean.

10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

10.1. 4.1 artikuluan zehaztutako inbertsio mota bakoitza artikuluan honetan zehaztutako irizpideen arabera baloratuko da.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak egokitzapen lanak egin ahalko ditu, entitate bakoitzak aurkeztutako inbertsio eskaerak banatuz edo multzokatuz, horrela 4.1. artikuluan ezarritakora hobeto moldatzen dela ulertuz gero.

a) Merkataritza lokalaren kokagune den toki erakundearen biztanle kopurua (gehienez 50 puntu).

BIZTANLE KOPURUA	PUNTUAK
2.000 baino gutxiago	50 puntu
2.001tik 8.000ra biztanle bitartean	40 puntu
8.001tik 100.000ra biztanle bitartean	30 puntu
100.000 biztanle baino gehiago	10 puntu

b) Inbertsio mota (30 puntu, gehienez). Aurreko 4. artikuluan zehaztutako inbertsioetatik zein mota aurkeztu den hartuko da kontuan.

INBERTSIO MOTA	PUNTUAK
4.1.a) Hobekuntza teknologikoarekin lotutako inbertsioak	20 puntu
4.1.b) Lokalaren ekipamendu fisikoarekin eta irisgarritasunarekin lotutako inbertsioak	10 puntu

c) Erakunde eskatzailearen langileen plantillaren tamaina. Atal horren barruan, langile autonomoen eta langile kontratatuen arteko batura hartuko da kontuan (gehienez 10 puntu).

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BATEZ BESTEKO LANGILEAK	PUNTUAK
Langile bat edo gutxiago	10 puntu
Langile bat baino gehiago eta 2 langile edo gutxiago	9 puntu
2 langile baino gehiago eta 3 langile edo gutxiago	8 puntu
3 langile baino gehiago eta 4 langile edo gutxiago	7 puntu
4 langile baino gehiago eta 5 langile edo gutxiago	6 puntu
5 langile baino gehiago eta 6 langile edo gutxiago	5 puntu
6 langile baino gehiago eta 7 langile edo gutxiago	4 puntu
7 langile baino gehiago eta 8 langile edo gutxiago	3 puntu
8 langile baino gehiago eta 9 langile edo gutxiago	2 puntu

d) Aurkeztutako eskaeran hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (10 puntu gehienez).

ESKAERAREN KALITATEA	PUNTUAK
Telematikoki eskaera aurkezteko onean osorik aurkeztutako eskaerak	10 puntu
Osorik aurkeztutako telematikoki eskaerak, lehen dokumentazio errekerimendu baten ondoren	5 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

e) Aurkeztutako eskaeran inbertsioen (ez aurrekontuen) fakturak eskaerak aurkezteko mugaeguna baino lehen aurkeztu izana (inbertsioa ere mugaeguna baino lehen eginda egongo da) (10 puntu gehienez).

INBERTSIOA EGITEA	PUNTUAK
Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen egindako inbertsioa eta aurkeztutako faktura	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

10.2. Erakunde onuradunak zehazteko, amaieran hautatzeko eta bakoitzari emango zaion munta zehazteko, (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoari men egingo zaio.

10.3. Baldin eta eskaeran sartutako inbertsioak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren ustez, ez badira behar bezain lagungarriak dirulaguntzaren xedea betetzeko, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.1 idatz zatian ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehienezko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak, balorazio batzordearen proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina egintza hau jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabete igaro baino lehen Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza hau jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Dirulaguntza justifikatu eta ordaintzea

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Dirulaguntzak bide elektronikotik justifikatuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkorekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzule.

12.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartzeko, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2024ko azaroaren 4a 14:00ak baino lehen:

– Egindako inbertsioen memoria. Obrak eginez gero, obren argazkia ere aurkeztu behar da memoriarekin batera.

– Justifikazio fakturen zerrenda, hauexek adieraziz: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze epea eta ordainketa eguna, hala badagokio.

– Dirulaguntzaz besteko diru sarrerarik izan bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

– Eskabidearekin aurkeztu ezean, justifikatzeko fakturen jatorrizkoa.

– Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopia jatorrizko dokumentuekin bat datozela.

b) Dirulaguntza honetaz gain, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektroniko kualifikatuen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Kontratu txiki gisa ezarritako zenbatekoak (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) baino gehiago edo haien besteko gasturik izanez gero, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautaketa horren justifikazioarekin batera, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago izanik.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

Profesionalek igorritako fakturei dagokienez, onuradunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta egiaztatzen bada egin beharreko atxikipenak ez direla sartu, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagokion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.4. Onuradunak lehenago aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu dituzenean, betiere 2025ko apirilaren 10a (egun hori barne) baino lehen, ordainduko da dirulaguntza. Ordainketa frogagiritzat hartuko dira banka elektronikoaren bidez egindako banku laburpenak eta/edo transferentzia aginduak, ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data zehaztuta dutenak. Halaber, ordainagiritzat hartuko dira tiketak (faktura erraztuak), baldin eta Fakturazio Araubidearen 7. artikularen 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera egin badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua), hau da, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen duten faktura erraztu kualifikatuak, jasotzen dutenak hartzaileren IFZ eta helbidea, baita esleitutako zerga kuota bereizita ere, eta zehazten dutenak diruz lagundutako jarduna. Eskurako ordainketen kasuan, frogagiritzat hartuko da faktura egin duen erakundearen ziurtagiri sinatua eta/edo zigilu estanpatua duena, fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data zehazten dituzena, baldin eta zenbateko horrek ez baditu berdintzen edo gainditzen 2024an eskudiruzko ordainketei buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoak.

12.5. Baldin eta 6.1 atalean ezarritako dirulaguntza mugaren bat aplikatu bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak txostena egin ondoren, diruz lagundu daitezkeen gastuen murrizketak onartu ahal izango dira, esleitutako dirulaguntzak aldatu gabe. Horretarako, dirulaguntzaren xedea bete behar da eta murrizketa horiek justifikatu behar diren eta diruz lagundu daitezkeen gastuen gutxieneko zenbatekoa bete behar dute. Honela aterako da gutxieneko hori: emandako dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

12.6. Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketaren zenbatekoa, baldin eta 2024ko ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabalioa atzerriko monetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

13. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

14. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari berriaz uko egiten ez badio emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

15. artikulua. Araubide juridikoa

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta dirulaguntzen arloan honako hauek ematen dituzten xedapenen mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko 2024rako aurrekontua gauzatzeari buruzko indarreko Foru Araua, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.